

JUSTO MARI MOKOROAREN LANA ETA ERAGINA

Xabier Kintana Urtiaga

Jaun-andreok, agur:

Erdi Aroan, etxetik irteteen, zaldunek beren jauregien ate gaineko armariari begiratzeko ohitura omen zuten, han ageri ziren sinboloak eta dibisak, beren leinukoen adierazgarri, beti gogoan izan, haiek ohorez gorde eta egunean zehar beren eginetan zintzoki betetzen ahalegindu behar zutela oroitzeko, haiekin, hil arteraino, ezin hautsizko lotura sentitzen zuten eta.

Gure egunotan ere badira antzeko pertsona batzuk, irudiz, sortzetik markatuak, bizitza guztian beren ustezko bideari beti zuzenki jarraikiak, behin ere saihestu gabe. Gaur egungo zaldun ibiltariak ditugu horiek, egoera zailetan ere beren idealei eutsita, ingurukooi fideltasunaren testigantza paregabe bezain eskergarria eskaintzen jakin dutenak. Eta Justo Mari Mokoroa horretarikoa ukan dugu, bataioan eman zioten izenarekin beti bat, hain justu ere. Ez da harritzekoa, hortaz, hura ezagutu eta tratatu genuenongan ezin ezabatuzko oroitzapen sakona uztea, Gure Herriarentzako une ilun eta gaitzotan argigarri.

Ni ere haren ikasle izan naiz, eta, zinez diotsuet, orain haren figura zuen aurrean gogora ekartzean, iruditzen zait ez dela hil, oraino aitzinean dudala, eta neure ondoan haren itzal argia orain ere sentitzen dudala, Axularrek Bertrand Etxaus artzapezpikuarena sumatzen omen zuen bezala. Izan ere, utzi digun lan erraldoiagatik, euskaldun guztiok Mokoroari asko zor badiogu, are zordunagoak gara hura zuzenean tratatzeko aukera eta beragandik ikasteko zoria ukan dugunok.

Famili ingurumena

Justo Mari Mokoroa Muxika Tolosan jaio zen 1901.eko maiatzaren 28an, gaur egun ia sinesgaitz egiten zaigun kristau famili giroan, izan ziren bederatziz seme-alabetatik zazpik behintzat bokazio erlijiosoa izan zuten eta.

Aita, Valeriano Mokoroa (1871-1941), gizon oso ezaguna zen Tolosan. Herrian moldiztegia eta liburudenda zuen, baina horrez gainera, bazen idazlea

ere. 1897an *Damuba garaiz* eta (1902/3) *Aitortu egin bear!* edo *Guraso baten estuasunak!* komediak idatzi zituen. Azkuek Bilbon fundaturiko *Euskalza-le* astekarian hasiera-hasieratik parte hartu zuen Valerianok. *Euskal-Erria* aldizkarian poema batzuk eman zituen argitara. Era berean, bere lehengusu txiki Eduardo Mokoroa musikagileari eliz kantuen letrak ere egiten omen zizkion. Bistan da, beraz, jainkozaletasunaz batera, euskaltzaletasuna ere etxekeoengandik jaso zuela umetandik.

Lehen ikasketak bere jaioterriko aita eskolapioen ikastetxean egin zituen 1906.etik 1913ra bitartean eta, horrek gidatuko zuen, seguraski, bere bokazio aukera egitera.

Mokoroa eskolapio

Bere erlijio-ikasketak egin ondoren, apaizgoa Iruñean jaso zuen Mateo Múgica Urreztarazu diozesi apezpikuaren eskutik.

Ondoko urteetan Zaragozan, Iruñean eta Txileko Santiagon aritu zen irakasle. 1933. urtean aita eskolapioen probintzialak, Pantaleon Galdeanok, Vasconia - Euskal Herriko Probintzia eskolapioa eratzea erabaki zuen. Hori dela eta, nagusiak deituta, Txile utzi eta Aita Mokoroak 1934.ean Iruñera itzuli behar izan zuen. Lehen unetik Probintzialaren laguntzaile eta idazkaria izan zen, eta lan handia egin zuen Euskal Herriaren kultura eta hizkuntza eremuari egokituriko Probintzia berria antolatzen.

1936ko gerra zibila hasi zenean, segurtasunagatik Mokoroak Iruñea utzi behar izan zuen. Ipar Euskal Herrian, Beloc-en egon zen babesturik. Hor zerbait hilabete eman zuen, beneditar gazteei eskolak ematen, baina handik laster, frantsesez oso ongi mintzatzen zekiela eta, Mathieu-k, Akizeko apezpikuak, Diozesiko Apaizgaitegira eraman zuen. Han lau urtez jardun zuen irakasle.

1941eko apirillean Tolosara itzultzeko aukera izan zuen, egoera ezin tristeagoan: aitaren hiletara etortzeko hain zuzen. Eskolapioen Orendaingo komunitatean sartu zen, baina ez zuen han luzaro iraun, gerra ondoko errepre-salienen beldur. Horrela, urte bereko urrian berriz ere Amerikara joateko ontziratu zen, Txile helmuga.

Bederatzi urte eman zituen han, lehen ere egona zen Santiagoko ikastetxean. Ospe handia eman zioten lekuari aita Justoren frantses eta erlijio klaseek. Han izan zen bitartean bertako euskaldun emigrante eta erbesteratuekin harremanak izan zituen, Estornes-Lasatarrekin batez ere.

1950ean Europara itzuli zen. Tafallan egotaldi laburra egin ondoren Madrilerara bidali zuten, berak aitortzen zuenez, "bertan ezer ez egiteko".

Euskal Herrira 1953an etorri zen berriro, eta oraingoan betiko. Tolosako ikastetxean bi urte eman ondoren (1953-1955), Bilboko Calasanz Ikastetxeko komunitatean sartu eta bertan hil arte iraun zuen, urte batzuetan, ikastetxeko konponketa-lanak zirela eta, 1971ko ekain-iraila artean Iratzen eta 1985eko maiatzetik 1987ko urtarrilera arte, Tolosan bizi izan arren.

Aita Mokoroa irakasle

Nik hemen ezagutu nuen aita Justo, 1957. urtean Eskolapioen Bilboko Ikastetxeko Errektorea zelarik, neure 10 urterekin neure gurasoek batxilergoko sarrera prestatzera beragana eraman nindutenean. Gogoan dut oraindik harekin izandako lehen elkarrizketa, eta haren aurpegi serioa.

Gizon argala zen, altuera ertainekoa, begi zorrotz barrendariekin. So egiteko moduan aski nabarmen erakusten zuen bere adimen zolia. Ikasturte batez frantseseko irakasle izan nuen, hamabost urte nituela. Eskola eta pedagogia zaharreko maisua zen, baina erabat efikaza, eta beti ere bazekien ikasleok errespetatzen. Eskolak arreta handiz prestatzen zituen eta testu-liburuez gainera, bere apunte, ohar eta fraseologia zerrenda mekanografiatuak ekarri ohi zizkigun. Metodikoa zen eta klaseak argi azaltzen zituen, horretarako hitz egoki eta zehatzak bilatzen saiatuz. Baina ikasleongandik ere arreta eta ardura berberak eskatzen zituen, zorroztasunez. Azterketak zuzentzeko orduan ere ohi ez bezalako eskrupulua izaten zuen, gauza guztien gainetik justizia gorde guran, justutasuna, alegia.

Ez zen, egia esan, orain modan dauden maisu maitagarri eta hurbil horietakoa; aitzitik, beraren eta ikasleen arteko urruntasuna mantentzen zuen, konfiantza handiegirik eman gabe. Horregatik, behin ikasketak amaitu ondoren, ikasle-ohi gisa harekin harremanak izaten segitu genuenok, ezusteko ez txikia izaten genuen, klaseetakoa ez bezalako aita Justo hura ezagutzeari, gizatiarragoa, begikoa, gure eskari edo laguntza-eskei beti erantzuteko prest, euskaraz mintzatzean aparteko bokantza eta jatortasunaren jabe.

Oso barruan zeraman Frantziako irakaskuntzako *Langue et civilisation* bikotearen ezin hautsizko elkartasuna, hots, ez zegoela hizkuntza bat ikasterik hura zerabilen herriaren kultura, literatura, historia, tradizioak eta ohiturak ere ongi ikasi gabe, eta horien berri ere sarritan ematen zigan.

Harrigarria bada ere, oso gutxitan aipatzen zigan klasean euskarari buruzko konturik, haren irakasgaia frantses hizkuntza izanik. Baina frantsesaren egiturek horretarako aukera ematen zutenean, lantzean behin euskararekin konparaketa laburrak egin ohi zituen, hogeinaka zenbatzeko sistemari (laurogei = quatre-vingts) edo gramatikazko beste xehetasunen batean, adibidez, baina besterik ez.

Gogoan izan behar da orduan Francoren garaian geundela eta, klandestinitate-giroaz gainera, bazuela gerra-denboran berak pasaturiko esperientzia latzen oroitzapena ere. Halere, beste irakasle batzuek esanda, Javier Eizagirrek eta Jesus Etxabek batez ere, bagenekien oso euskaltzalea zela. Guztiek goraitpatzen zuten hizkuntzak ikasteko zuen zaletasun eta erraztasun handia; latin, greziera eta frantsesez gainera, ingelesez eta alemanez ere mintzatzen zelako, eta “seguraski, bera zela munduan euskara gehien zekiena”.

Behin batean, aita Justoren urtebetetzea zela jakin genuen eta hura klaserara heldu baino lehenago, arbelean “Zorionak eta urte askotan” esaldia idatzitzi genion, euskaraz zekien eskolapio bati hitz horiek nola idazten ziren galdetu ondoren.

Hori ikustean, Mokoroak ezin ezkutatzuko poza hartu zuen, bere gelara joan eta Labeguerie-ren disko bat ekarri zigun, garai hartan erdiklandestinoa, jai txiki bat antolatzeko. Gogoan dut, gainera, *zorionak* hitzaren jatorri zaharra azaldu zigula, hots, horrek euskara zaharrean, ‘txori onak’ esan nahi zuela, grekoek, erromatarrek eta antzinako beste herri batzuek egiten zuten bezala, behialako euskaldunak ere hegaztien kantu, hegaldi edo bestelako seinaleengatik etorkizuna asmatzen ahalegintzen omen zirelako. Eta ezer falta ez zedin, erdarazko *pajaros* edo *aves de mal agüero* esaerak, *de mal augurio* esan nahi zuela argitu zigun, uste zahar berean oinarriturik, eta, etorki berekoa zela, halaber, euskarazko *agur* hitza ere, latinezko *augurium*-etik heldua.

Horra hor, hitz bakar batetik abiaturik zer nolako ondorio luzeak atera ohi zituen Mokoroak, saskitik gerezi bat jasotzean, txortanak beste askorekin korapilatu eta azkenean kate luzea kanporatu arte. Ikasleok, zer esanik ez, horiek guztiok entzutean are gehiago miresten genuen bera, aho zabalik, eta haren jakituria itxuraz agortezina.

Funtsean, Justo Mari Mokoroa, ohiko euskaldun apaiza zen, tradizionala, San Tomasen filosofiaren iturrian edana, mundu honetako bizitzari buruz ezkor xamarra eta mistikarako nolabaiteko joeratxo zuena. Bere buruarekin zorrotz eta estua izaten bazen ere, besteak epaitzeko, ordea, bigunago agertu ohi zen, giza ahuleria txikiak kondenatu ez baina ulertu eta nolabaiteko umorez justifikatzen zekiena. Aholku bila zetozkionekin, aldiz, zuhur bezain zehatza izaten zen, eta inoiz gogorra ere bai, egiatzko arazoak kortesiazko xurikeriaz ezkutatu gabe.

Mokoroa euskaltzale eta idazle

XIX. mendearen bukaeran Donostia -Jose Manterola eta Serafin Barojari esker, batez ere- euskal kulturaren gune garrantzitsua izan bazen ere, hurrengo mendearen hasieran, zuzia Tolosak kenduko zion neurri handiz, udako madrilerkiaren poderioz hiriburuak lehenagoko euskaltzaletasuna aski galdua

zuen eta. Ez ziren alferrik Tolosan bizi, besteak beste, Labaien, Lizardi, Jose Ariztimuño "Aitzol" eta Ixaka Lopez-Mendizabal bezalako idazle eta bultzatzaile bikainak, gure kulturaren behialako garo-usainari hiriko giro kaletarra ere eransten saiatuak. Eta, jakina, horrek ere bere eragina izan zuen Mokoroa gaztearengan.

Valeriano Mokoroa ezagutu eta tratatu zuten guztien aburuz, hizlari eta solaskide bikaina omen zen, eta mintzatzeko erraztasun horrek inoiz teatro-jokalari izatera ere bultzatu zuen (R. Azkarateren *Ijitiuen kontratuba eta ezkontza*-n, 1895ean). Ez da harritzekoa, hortaz, haren seme Justo Marik hizkuntzaren adierazkortasuna txikitandik mirestea, eta mintzo zenean ere halaxe nabarmentzea.

1920ko udan Eusko Ikaskuntzak bere II. Batzarra Iruñean egin zuen. Egun haietako batean biltzarkideak Iratxera joan ziren. Hango monasteriora heldu zirenean Mokoroa gazteak egin zien ongi etorria. Guztiek aho batez go-raipatu zuten 19 urteko mutil haren euskara garbi eta dotorea.

Etorri handiz hitz egin ez eze, idatzi ere, halakoxe trebetasunaz egiten zuen. Bere lehen lanak Donostiako *Argian* publikatu zituen. Geroago *La Voz de Navarra*, *Zeruko Argia* eta *Euskal Esnalea* aldizkarietan ere idatzi zuen. Apaltasunez "Ibar", "Iparralde" eta "Argizale" ezizenak erabili zituen. Txilen zegoela *Gure baratze*ko *loreak* bilduma eman zuen argitara.

Bere lan originalaz gainera, aparteko maila lortu zuen Mokoroak itzulpengintzan. Ez dira asko, egia esan, utzi dizkigunak, baina haren eskutik helduriko lanek benetako harribitxiak dirudite, bere hobezintasunean. Bi aipatzeko, hor dira Iturralde y Suit-en *Errotazuriko Urretxindorra* (1924) eta Campionen *Erraondoko azken danbolintera*, (1925) lanen euskal itzulpen bikainak. Mintzatzean bezala, idazterakoan, itzulpenetan batez ere, gogoan izaten zuen beti Axular zaharraren aholkua: *eztitut bethiere eskritura saindua eta doktoren erranak ere hitzez hitz euskarara bihurtzen: zeren euskara eta bertze hizkuntzak diferent baitira*, gure hizkuntzaren barne-jeinua jagon nahirik, erdal morrontzatik ihes egiteko.

Bere merezimendu nabariengatik Akademiak 1957ko irailaren 26an Euskaltzain urgazle izendatu zuen. Urtebete lehenago *De vida o muerte. Operación salvamento* lantxoak argitaratu zuen, orduan hiltzorian aurkitzen zen euskara aurrera ateratzeko proposamen zehatz batzuekin, herri-euskararen aldeko apustua eginez. Antzeko jarrera aurkeztu zuen 1968an ere, bere *Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka* txostenean ere, Euskaltzaindiak, hizkuntzaren batasuna eztabaidatzeko antolatu zuen Arantzazuko batzarrean aurkeztua. Ideia hauek guztiok *Lengua vasca de hoy y de mañana* liburuan argitaratu zituen 1971. urtean.

1979. urtetik aurrera ohorezko euskaltzaina izan zen.

Genio y lengua

Zalantzarik gabe, Justo Mari Mokoroaren bi obra erabakigarrietako bat *Genio y lengua* izan zen, gerra zibilaren bezperan argitaratua. Liburu gutxi izan dute Euskal Herriaren historian honek bezalako eragina. Eta, egia esan, plazaratu zen uneko giro politiko desegokiagatik, liburuak ez zuen zabaltzeko bat ere aukera onik izan. Halere, ia-ia ezkutuan, eskuz esku eta ixilka-mixilka hedatuz joan zen, gerraondoko gazte-belaunaldiaren ezin utzizko gidaliburu bilakatu arte.

Obra horretan Justo Mari Mokoroak euskal nazioaren zutabe nagusia seinalatu zuen: hizkuntza alegia. Haren ustez, euskarak egiten gaitu euskaldun, beraren bidez eskuratzen baitu gure jendeak bere pentsabide bereziaren mami. Haren ustez, edozein herriren izpiritua hizkuntzan datza, eta bere mintzaira galtzen duen pertsonak, harekin batera bere izaera eta naziotasuna ere galtzen ditu erremediorik gabe. Horixe zen, hain zuzen, Campionen *Erraondoko azken danbolinteroa* ipuinak, berak euskarara itzuliak, argi erakutsi nahi duen ondorioa. Alde horretatik, zalantzarik gabe, Euskal Herriari Mokoroa izan genuen aleman pentsalarien *Volksgeist* edo Herri-arimaren teorialari nagusia, euskal nazioaren oinarri funtsezkoena euskararen zela aldarrikatu ziguna.

Arraza, odola, euskarazko deiturak eta hemen berton jaio izatea nazioaren zutabe nagusizat jotzen ziren garaian, berak, euskalduntasunaren oinarria hizkuntzan zetzala azpimarratu zuen ausarki, eta, beste kontsiderazio ororen gainetik, euskaldunon helbururik behinenak geure hizkuntza salbatzea izan behar zuela, gure naziotasunaren irauteko bide bakarra hortik etorriko zelakoan. Horrek guztiorrek, noski, eragin zuzena izango zuen ondoko belaunaldien ideologia euskaltzaleagoan; Mitxelena, Krutwig, Txillardegi edota Arestirengan batez ere.

Lexiko gaurkotuagoaz esanda, Mokoroak garbi intuitu zuen genetikak ez ziola nazioari iraupena bermatzen, hots, arazoa ez zela ekintza biologikoa, kulturazkoa baizik, eta, beraz, belaunaldien arteko lotura nagusia hizkuntzan errotriko munduikuskera berezian bilatu behar genuela. Sentimendu hori, gainera, seguraski are nabarmenagoa zatekeen bere moduan, zelibatoagatik, haragizko seme-alabak izateari uko eginda, bere bizitza osoa gazterien hezkuntzari, izpirituak lantzeari, kotsakratu zion pertsona batengan.

Bere liburuan aita Justok, hegoaldeko Larramendi eta Aranaren garbiza-lekeriaren bide okerra barik, Iparraldeko euskaldunen pragmatismoa eta zentzu ona goستن zituen, Axular eredu, eta herri-mintzairarekiko errespetua predikatzen. Etorikizunerako bide berriaren hasiera itzaropentsua, bestetik, orduan Orixek kaleratu berria zuen *Euskaldunak* poeman zekusan, ilusioz betirik.

Edonola ere, ezin ahantz dezakegu *Genio y lengua* bere garaiko produktua zela eta, beraz, ez gaitu harritu behar, gaurko begiekin ikusita, anitz partartetan, ohitura eta moralari dagokionez batik bat, egilea integrista samar agertzeak. Mokoroa bera ere horretaz konturatua zen eta halaxe aitortzen zidan bere liburua irakurtzeko utzi zidanean. Elizgizona zen aldetik, eta gerra aurreko giro hertsi hartan, nazioaren izaeran erlijioaren garrantzia azpimarratuegi zuela onartzen zuen. Halere, gainerako atal gehienek ez dute gaurkotasunik bat ere galdu.

Katakonba eta etsipen-urteak

Bere gaztaroan Gipuzkoako herrietan ezagutu eta bizi izandako euskal giro jori eta aberatsa gaztelaniaren eraginpean belaunaldiz belaunaldi ezereztuz zihoala ikustean jadanik kezkatzen hasia bazen, geroago, gerrako eta gerra ondoko gertakariak sakonki hunkituko zuten aita Justo. Frankistek eginiko era guztietako gehiegikeriek eta euskararen aurkako errepresio latzak –azken denboretako errebisionistek; Jaime Ignacio del Burgok, adibidez, sinetsarazi nahi liguketenez, egiazki holakorik inoiz izan ez arren– barne muineraino ikaratu eta astindu zuten Mokoroa eta gure hizkuntzaren heriotzako ordua hurbil zela pentsatzen zuen etsipenez.

Dakigunez, duda-mudazko etorkizunaren aurrean bitariko lagunak egoten dira eta hori autobusaren etsenpluagaz irudikatu ohi da. Geralekurantz joan eta hara heltzeko berrogeita hamar bat metro falta zaizkienean, autobusa bertan dela ikusita, pertsona batzuek, etsipenez, haraino iritsi baino lehen autobusa irten eta bera galduko dutela pentsatzen dute, eta horregatik ez dira ahalegintzen lasterka ibiltzen. Beste batzuek, ordea, egoera berean, korrika abiatzen dira, azken istantean bada ere, autobusa harrapatuko dutelako esperantzan.

Esan ohi denez, bitzuen artean zuhurrenak bigarrenetarikoak izaten dira, hauek, arinka ibili ondoan autobusa galdu arren ere, hartan saiatuak eta ahaleginduak izateko kontsolakizuna behintzat izaten dutelako. Lehenengoetari-koei, ordea, beti geldituko zaie korrika ibili balira agian autobusa hartuko zuketelako zalantza mingarri bezain erremediogabea. Eta Mokoroak, jakina, ez zuen horrelako alfer damurik nahi bere kontzientziaren gainean.

Zulo beltz hartan, halere, bazuten euskaltzaleek esperantzarako zirrikitu bat: izan ere, urte haietan Israelen juduak jo eta ke ari ziren hebreera hila berpizten, eta horrek, Mokoroak berak aitorturik, zer pentsa ematen zien.

Baina lagun baikorregiek bestelako iritziak izan arren, Mokoroak, aldiz, ez zuen pentsatzen, behin hizkuntza hilez gero, hiztegiak eta gramatikak hura berpizteko aski izango zirenik. Horiek hezurdura eta, agian, inguruko giharria eman ziezaioketen, baina, hala eta guztiz ere, ezingo ziotketen itzuli lehenagoko arima bizia, barru-barruko jeinu eta izpiritu joana. Horretarako, zer-

bait gehiago beharko zuen: herri-nortasun bereziaren ispilu diren esapide eta ateraldi jatorrak. Eta, erabat galdu baino lehen, horiek guztiok jaso beharra zegoela konturaturik, lan horretan buru-belarri murgildu zen, historiaren autobus iheskorra harrapatu nahian.

Mokoroa eta beste euskal idazle batzuk

Bizitza gehiena eskolapioen ikastetxearen barruan eman arren, bazuen, horregatik, aita Justok harremanik bere garaiko beste idazle eta ikertzaileekin.

Esatera zahar bila zebilela, Mokoroak inoiz hitz bitxiak ere aurkitzen zituen, maiz Azkuek bere hiztegian bildu gabeak. Behin holakoen zerrenda luzetxo bat prestatu eta Euskaltzaindira joan zen, berba haiek Azkueri eskaintzeko asmoz, beronek bere hiztegiaren hurrengo edizioan erants zitzaizkion. Lankidetzaren desinteresatu honez gainera, ez dirudi euskalari erraldoi hauek elkarrekin harreman handia izan zutenik, lekeitiarra Bilbon egon zen bitartean, Tolosakoak luzaro atzerrian bizi behar izan zuen eta. Lotura estuagoak izan zituen, ordea, Lino Akesolo karmeldararekin eta Aita Zavala jesuitarekin, honen bertsozari arloan egindako lanaren miresle handia zen eta.

Gabriel Arestik ere harremanak izan zituen J.M. Mokoroarekin. Elkarren arteko tratua, ordea, ez zen oso beroa. Gogoan izan behar dugu bien artean ideologia amildegi sakona zegoela: bata erlijiosoa eta kontserbadorea zen artean, bestea, aldiz, agnostiko eta ezkertiarra genuen eta. Euskararen etorkizunaz ere apostu bana eginga zuten gainera: tolosarra betiko herri-euskararen aldekoa; literatur euskara batuaren bultzatzailea genuen, aldiz, bilbotarra. Biak idazle, baina bide erabat aldentuetatik abiatuak.

Edonola ere, jakin beharra dago Gabriel Aresti biziki interesaturik ibili zela Mokoroaren lanetatik eta horretarako finantzabidea aurkitu ere bai. Aita Justok hori egokiro eskertuko zion bere *Ortik eta Emendik* liburuaren atarikoan.

Ortik eta emendik

Izen honekin argitaratu zuen aita Justok, azkenean, 1990. urtean, bere esalditegi ospetsua, haren bizitza osoaren emaitzarik landuen eta maiteena.

Gorago azaldu den kezka bultzaturik, denbora galdu gabe, euskal esaldien biltzaile sistematiakoari ekin zion gaztetandik Justo Mari Mokoroak. Job sailduarena baino pazientzia handiagoarekin, liburu-aldizkariak arakatu, entzundako elkarrizketa interesgarriak, gogoan izandako esaldi bitxiak eta antzeko materialak biltzen hasi zen, horretan kontu ezinezko orduak emanaz.

Bere bizitzan Mokoroak euskal hiztegitxo bat argitaratu zuen, haren apaltasunagatik anonimoa, eta badakigu *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera*-n ere esku hartu zuela, baina hor izandako esperientziak ez zion askorik lagundu bestelako lan honetarako. Hiztegiek, alfabetoaren ordenari es-

ker, hitzak sailkatzeko era jakina dute, baina esalditegiak ezin daitezke alfabetoaren arabera ordena. Hortaz, urteak eman behar zituen Mokoroak bere esaldi-hiztegirako antolaketa egoki eta praktikoa aurkitu arte. Azkenean, A. Pinloche eta Ferdinand Brunot-en koadro eta aurkibideei esker, kategoria eta kontzeptuen arabera sailkatu ahal izan zituen bere obrako ia 100.000 esaerak, berrogeita hamar urte baino luzaroago hortik eta hemendik bilduak. Gogoan izan beharra dago, gainera, zeregin hori informatikaren oraingo tresnak eta baliabideak merkatura heldu baino lehenago egin behar izan zuela, lan mekaniko izugarria leporatuz.

Gogoan izan dezagun, adibidez, bere obra burutzeko, 385 liburu aztertu zituela eta badituela 1.266 pertsonaren lekukotasunak ere. Eta guztiak fitxetan eskuz jarri zituen. Lanari ekin baino lehen kontsulta asko eta harreman ugari izan zituen Espainiako espezialistekin, Casares edota Sabina de la Cruz-ekin, adibidez.

Zorionez, azken urteetan Labayru elkarteak eta Bizkaiko apezpikutegiak eskainiriko laguntzari esker, lehenagoko lana biziki erraztu zitzaion, mekano-grafiatzeko laguntzaileak, informatika-espezialistak etab. aldamenen izanik. Ordenatze eta zuzentze-lana, ordea, ez zuen inoren esku utzi nahi izan eta berberak gainbegiratu zuen guztia, azken xehetasuneraino, obrak guztira dituen 3.454 orrialdeetan zehar.

Lan hori Euskal Herrian inoiz agertu den liburu harrigarrienetakoa da, euskalki, mende, lanbide, egoera sozial eta giza sentimendu ororen ispilu, gure jendearen arima sakona bere ateraldietan islatuz. Hortxe ageri zaizkigu geure aurreko eta oraingo herritar askoren poz, haserre, neke, ilusio, etsipen, malizia, damu, osasun, aldarte, ironia, gose, egarri, nahi, gorroto, bekaitz eta eguneroko gorabehera asko adierazteko esaldi eder bezain baliotsuak, eta horiek, zer esanik ez, gaurko erdal giro maiz itogarritik urrunduta, aire freskoa biritetartzeko aukera ona eskaintzen digute. Zinez egiazko urregorri printzak darizkion iturria dugu obra hori, idazle, irakasle, ikasle eta euskal kulturaren sakondu nahi duten orentzat zin-zinez gomendatzekoa. Esaera horietako asko eta asko, Mokoroaren aurrikuspenagatik izan ez balitz, dagoeneko betiko galdurik leudeke, berreskura ezineko espezie linguistiko gisa. Gure harekiko zorrak, beraz, betiko iraunen du, ez baita erraldoi-lan hori behin ere ahantziko euskaldunok diraugin artean.

Norbaitek esan dezake Mokoroaren obra behialako euskal kultura joanari dagokiola, eta artzain, baserritar, arrantzale edota olagizonen esaldi-ateraldiek ez dutela gaurkotasunik asko infomatika eta ikus-entzunezko hedabideen garai honetan, hirugarren milaurtekoaren atarion.

Hori dioenak baina, seguraski ez luke inolako arazorik izango inguruko erdarez mintzatzean eta harira etorritz gero, era honetakoak esateko: *eso es harina de otro costal, arrimar el ascua a su sardina, ir por lana y volver trasquilado, sacar las castañas del fuego, a buenas horas mangas verdes, un gra-*

no no hace granero pero ayuda al compañero, cabeza de turco, avoir une faim de loup, charbonnier est maître chez soi, revenir à nos moutons, le diable n'est pas aussi noir qu'on le dit, il n'y a pas un chat, edo propre comme un sou neuf, guztiok ere antzinako giro eta ohituren oihartzun garbiak izan arren. Zeren kultura, batez ere, iraganetik eta ingurutik helduriko tradizio propio eta atzerrikoen metaketa baita, horiek guztiok geureganatzen dakigun neurrian.

Iraganeko oinarriek, gura zein gura ez, pisu handia dute oraina eta etorkizuna eraikitzeko orduan, eta haien presentzia, fosil itxuran bada ere, egunero agertzen zaigu setati eta iraunkor, maiz hartaz konturatzen ez garen arren. Hortxe ditugu, adibidez, espainierazko *jueves*, frantsesezko *jeudi*, ingelesezko *Thursday* eta euskarazko *ostegun* eta *ortzadarra*, gure antzinako asaba zaharrek duela bi mila urte gurtzen omen zuten Jupiter, Thor edo Urzi orain erdiahantzien lekuko estali gisa.

Bestalde, gaur euskaldun askok ardura berezia izaten dugu erdal eredu itxuraz unibertsal baina egiazki aski partikular batzuetatik aldentzeko, eta espainol-frantsesen mintzamolde arruntak euskaraz onartu aurretik ingeles eta alemanaren bahetik pasarazten ditugu. Mokoroak ez zigun prozedura hori inoiz predikatu, baina bistan dago berak ere horixe zuhurki praktikatu zuela, ez baitzuen alferrik hainbeste mintzaira arrotzen berri, beti euskal senaren fabore.

Horrek ez du esan nahi, noski, tradizioa kutxa mugatu eta itxia denik. Izan ere, usadioa egunero egiten baita, bizimodu eta ohitura berriak asimilatzean. Ez dezagun ahanz, kasu, orain zahar eta klasikotzat jotzen ditugunak beren denboran ere berri izan zirela, hots, antzinako tradizio guztiak noizbait hasiera izan dutela. Alde horretatik, atzoko, gaurko eta biharko komunikatzaileronek, idazle ezagunek eta plazagizon ospetsuek sortu, sortzen eta sortuko dituzten ateraldi xebreak metaturik geldituko zaizkigu, etengabeko lehiakidetzan, maiz berria zaharrari tokia kendu nahian, hizkuntza biziaren altxorra osatuz.

Mokoroa eta politika

R. M. Azkue, Julio Urkixo edo oraintsu joan zaigun Luis Villasante euskaltzaleak bezala, Justo Mari Mokoroa ez zen inoiz politikazalea izan. Begi onez zekusan, hori bai, nazionalismoa, baina berotasun handirik gabe. Halere, Jose Antonio Agirre lehendakaria zinez miresten zuen, haren jokabide gizatiar eta kristauagatik. Gaztetandik, bere *Genio y Lengua*-n gogor kritikatu zuen hizkuntzari behar adinako garrantzirik ematen ez zion ideologia hori, eta, egia esan, Bizkaiko, eta batez ere, Bilboko abertzale tradizionalen kezken artean euskara ez zen nagusia. Txistua, herri-dantzak, pilota, txapela, abarkak, ikuirina, euskal deiturak eta axaleko beste ezaugarri batzuk inportanteagoak zi-

ren orduan gure hizkuntza bera baino. Seguraski horregatik Mokoroak ez zuen inoiz ohiko nazionalistengandik gauza handirik espero izan.

Aita Justo, Gurpide apezpikuagana

Bada Mokoroaren bizitzan pasadizo interesgarri bezain ezezagun bat, Euskal Herrian Elizak izan zezakeen etorkizunaz zuen kezka nabariro erakusten duena. 1953.urtean Jon Mirande zuberotarrak "Gernika" aldizkarian *Euskaldungoaren etsaiak* izeneko saiotxo bat idatzi zuen, Eliza Katolikoaren xedeaz. Obratxo horretan Mirandek kristautasuna, berez, erlijio arrotza zela zioen, kanpotarra, Euskal Herrira ekialdetik juduek ekarria, eta euskaldunoi askatzeko eta zoriontsu izateko bidea eskaini ordez, Espainia-Frantzietako eliz hierarkien azpian egoteko eta ilunik bizitzeko moldea besterik ez zekarrena. Horren ordez, behialako euskaldunen jainko-jainkosa zahar eta alaiak berreskuratu eta horietatik gurtzea proposatzen zuen, hots, Urtzi, Mari eta gure mitologia zaharreko irudimenezko beste pertsonaiak.

Antzinako euskal paganismoa berpizteko fantasia xeble horien artean, ordea, Elizari eginiko kritika hura neurri batez aski arrazoizkoa zen, garai hartako apezpikuak Francok berak aukeratzen zituela eta eliz buru askok euskarari egiten zioten mesprezioa gogoan izanda. Hortaz, orduko kristau agintariak frankismoaren politika zapaltzaileari eskainiriko onespene ageri bezain lotsagabe hartan Mokoroak euskaldun gazteriak fedea galtzeko bide arriskugarria zekusan. Hori zela eta, behin Pablo Gurpide, Bilboko Apezpikuarengana jo zuen, bere kezka azaltzeko asmoz. Horretarako, idatziz, Miranderen lantxolari buruzko iruzkina eraman zion, zuberotarraren lan hura, euskara errazagotan egin eta gazteen artean hedatuz gero zer nolako kalte izpiritual handia egin zezakeen azaltzeko. Bide berean, bere izkribuan Elizari Euskal Herriaren nor-tasanaz, kultura eta hizkuntzaz bereziki, gehiago arduratzeko erregutzen zion, euskaldun jendea erlijiotik urrundu baino lehen.

Ongi igarri zuen Mokoroak, igarri, zer zetorkeen. Gurpide frankistak proposamena eskuan hartu bai baina horregatik ez zion inolako kasurik egin. Urte batzuk geroago, 1968an, hirurogei apaizek Bizkaiko Seminarioan itxialdi sonatua egin zuten, protestan, Eliz agintariei Francok jarraera hura alda zezaten eskatuz. Bilboko apezpikua, atsekabez nonbait, urte berean hil zen. Hurrezkeron, Mokoroak susmatu bezala, erlijio krisi handia hedatuko zen gure Herrian.

Mokoroa euskararen batasunaren aurrean

Gauza jakina denez, aita Justo Marik ez zuen inoiz euskararen batasuna onartu. Eta arazoa ez zen hura "gaizki egina" zelako, hots, eredu estandarrik

euskalkien arteko oreka ondo lortua ez zuelako edo hautaturiko deklinabide edo aditz sistemari gaizki zeritzelako. Kontua bestelakoa zen, oinarri-oinarizkoa: haren iritzi, euskarak ez zuen batasunik behar.

Gaurko ikuspegitik pentsaezina litzateke euskarak irakaskuntzan, literatura, administrazioan eta hedabideetan lortu duen garapena, aurretik batasunik izan ez balu. Baina Mokoroa, autonomiaren lehen hamar urteak ezagutu arren ere, adinez, izaeraz eta pentsaeraz autonomia aurreko gizona genuen. Bere bizitza ia osoan ez zuen espainiera eta frantsesa besterik ezagutu ofizial Euskal Herrian. Berak, latinaz gainera, hizkuntza horietan jaso zuen, funtsean, zeukan kultura guztia, eta horregatik nekez burura zekiokkeen euskarak inoiz horien tokia bete ahalko zuela amestea.

Hori dela eta, bere garaian ezagutu zuen errealitateak erakutsi zionez, kultura nagusirako, zientziarako eta zeregin ofizial guztietarako, euskaldunok jada bi hizkuntza landu eta batu horiek genituela ontzat emanda, eta horren aurka egitea alfer-lana zelakoan edo, euskarari beste leku bat utzi nahi zion; gelditzen zena, hain zuzen: bihotzekoa, senide eta lagun arteko txoko kuttuna, barru-barruko sentimendu ezkutuak adieraztekoa, afektibitate-habiatxo gisa, hots, oinarri-oinarizko giza harremanetarako hizkuntzari dagokiona. Eta maila horretarako, noski, aski zen tokian tokiko euskarari eustea, inolako batasunik egin gabe ere.

Belaunaldi berriek jarrera hori kritikatu zioten, Lizardiren bideari jarraikiz, euskara orotarako hizkuntza, edozer esan eta azaltzeko mintzaira izatea nahi eta behar zutelako, baserri giro apaeko iratze-usaina zerion euskara hura, ordura arteko maila apaletik lehenbailehen jaso eta kaleko mintzaira, hiritar, eskolako, unibertsitateko bihur zedin. Eta bere buruaren adierazle eta azaltzaile ere bai.

Ordudanik jende anitz aritu da egokitze-lan horretan, gure hizkuntza zeregin goragoetako egokitzen, eta ondorioak begien bistan ditugu gaur egun: testu eta literatur liburu ugari, aldizkariak, egunkaria, hiztegiak, entziklopediak, zientzi irakurgaiak, ordenagailu-programak etab. Mokoroaren garaian nekez sinestekoak.

Noski, orain inork ez du hori guztiori zalantzan uzten, baina, gaur egun badakusagu hori ez dela nahikoa, horrez gainera, Mokoroak azpimarraturiko arloa ere berreskuratu eta landu beharra daukagula: giza harremanetarako euskara, jolas-hizkuntza, maitasun eta sentimendu-hizkuntza. Eta hori ezin dezakete hiztegi arruntek, gramatikek edo zientzia liburu hotzek eman.

Aita Justoren kezka horren barruko arrazoi handia argi ikusten dugu gaur, eta luzaro zokoraturiko edo ahantzi xamar izandako arlo hori berriro bultzatu beharra planteatzen dugu orain guztiok. Eta hor, zer esanik ez, euskalkiek, herriko euskarak, etxekoak, ezin utzizko tokia dute hizkuntza mintzatuan.

Edonola ere, ez nuke nahi Mokoroaren apologista hutsa izan nahi. Beraz, zilegi bekit hemen haren lanari formazko kritikaxo bat bederen egitea, hari bizi zenean errespetu osoaz adierazi nion berbera. Argi baitago, euskara baturaren premia ukatzean, konturatu gabe Justo Mari kontraesan aski larrian erori zela. Horren frogarik nabarmenena bere esalditegian bertan aurki dezakegu. Bistan da goi mailako liburu horretako esaera bereziak euskara hobetu nahi zuten euskaldun landuei zuzenduak zirela, hots, euskara askotxo eta ongi daitenentzat egin zuela bere obra. Halere, esaera horiek azaltzeko orduan, euskara baturik ezaz, erdara batuan eskaini behar izan zituen, paradoxaz, gure hizkuntzari, adierazgarritasunik handieneko arlo horretan inondik ere behar ez zuen erdal menpekotasuna pairaraziz.

Horrela, espainol batek *a perro flaco todo son pulgas* entzun edo esaten duenean, ez zaio burura etortzen, aldamenetik uxatu ezineko konpainiako dama gisa, hori frantsesezko *aux chevaux maigres vont les mouches* esaldia- ren adierakidea dela, frantsesak bere *houx, grenouille* edo *beurre* argitu edo definitzeko orduan euskarazko *gorostia, igela* edo *gurina* hitzetara jotzen ez duen bezalaxe. Hau da, erdalduna bere hizkuntzan buruaskia da, baina Mokoroak hautaturiko bideak euskaldunok, erdararen morroi egiten gaitu nahitaez, horixe besterik ez baita, azken finean (*sermolariak*) *neskatxak eta mutillak hartu ditu aboan* esaldiaren ondoan “ha sacado a relucir” edota *baten bati barruko gibelak estutu deusazuz*-en argigarri, irakurle euskaldunari hori erdarazko “¡Qué bien le has puesto las peras al cuarto!” edo “¡qué bien le has medido en cintura!” dela azaltzea, gure erreferentzi hizkuntza nagusia, berriz ere, espainiera jarrita, euskara ongi jakiteko, antza, euskaldun guztiok, bai eta iparraldekoek ere, espainolez jakin behar bagenu bezala.

Ene ustez, kritika hau berak ere ongi ulertzen zuen, baina formulatu genionerako esalditegia aurreratuegia zeukan, eta horren arabera definizio guztiak aldatu behar izan balitu, segur da ez zukeela bere obra behin ere argitaratuko, eta hor ere, jakina, hobe onaren etsai. Gure artean, gainera, ez da hori kasu bakarra izan, lehenagoko kultur inertziak eraginda.

Aita Justoren ikasleak

Haren ikasle izandako asko, behin eskolapioen ikastetxea utzi eta gero ere, sarri joaten gintzaizkion bisitan. Maiz solas egitearren, beste batzuetan hizkuntz arazoetan aholku bila, gure lehen euskal zirriborroak berrikus eta zuzen zitzan, eta inoiz gizarteko edo euskararen arazoren bati buruz mintzatze-ko ere bai. Beti ere, gramatika-gorabeheretan, literaturan eta fraseologia er- muan argitasunak, aholkuak eta iritzi oso interesgarriak eskaintzen zizkigun harengana jotzen genuen guztioi.

Izan ere, era guztietako ikasleak izan zituen, haietako batzuk aski ezagunak. Adibidez Gregorio Monreal, Euskal Herriko Unibertsitatearen lehen errektorea izandakoa, Juan Jose Pujana, Eusko Legebiltzarraren buru-ohia, Andolin Eguzkitza idazlea, Ramon Zallo, aurrekoa bezala EHUko irakaslea, Pato Unzueta kazetaria eta Adolfo Arejita idazle eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Segundo Oar-Arteta eta Labayruko beste kide batzuk ahanzi gabe.

Euskaldun berrioi buruz Mokoroak sentimendu kontrajarriak zeuzkala esan liteke. Alde batetik, noski, poza ematen zion bere ikasle izandako batzuk asaben hizkuntza galdua ikasten ari zirela ikusteak. Baina, bestetik, oso ezkorra izanik, euskara, benetako euskara jatorra, nahitaez amaren bularretik edoski behar zela uste zuen. Euskaldun askok txikitako euskara erabat galdu dutela eta beste anitzek ahoz eta lumaz erdaraz oso ongi -eta berbera dateke horren adibide bikainena- eta euskaraz baino hobeki egiten dutela ohartu gabe nonbait, berak ez zuen sinesten euskaldun berriak euskara behar bezala mintzatzera inoiz hel zitezkeenik.

Iritzi hertsiegi horrekin, beharbada, euskal alorretik izpiritu ahuleko ikasleren bat uxatuko zuen, eta baten bati euskalduntzeko saiorik txikiena ez egiteko aitzakia ezin hobea eman ere bai, euskara ikasten jardutea alfer-lana eta ezin lortuzko helburua izango zelakoan. Baina beste askorengan, ordea, aita Justok erakusten zuen ezkortasun hura egiazko erronka bihurtzen zen, eta dizipulu zahariek ekinaren ekinaz ezina egingarri zitekeela frogatu nahi zioten maisu zahar egoskorriari, nolabaiteko paradoxa erabiliz, arrazoirik ez zuela konturatzean pozteko arrazoia behintzat izan zezan.

Azken urtea

Esan liteke bere izpirituko haur kutunaren jaiotza ikusteko irrikak ia 90 urte arte mantendu zuela bizirik Mokoroa. *Ortik eta emendik* argitaratzeko, jo eta ke aritu behar izan zuen lanean, eta horrek, izugarri ahuldu zizkion zaharzaroko azken indarrak, argia emateko bere burua erretzen duen kandela piztuaren antzera. Bere liburuaren haurdunaldi neketsuaren zorioneko erditze pozgarriarekin, ordea, lasai gelditu zen, behin baino gehiagotan zeharo etsirik egona baitzen, bere bizitzako obra nagusia inoiz argitaraturik ikusiko ez zuen beldurrez.

Bizitza luze bezain emankorra izan ondoren, 1990eko azaroaren 7an, Bilbon itzali zen, Deustuko San Sebastian doktorearen klinikan, bere 89 urteekin burua oraindik asmo eta xedez beterik zeukala. Hileta-mezan Juan Mari Uriarte apezpikuak Orixeren *Euskaldunak* poemako bertso batzuekin eskaini zion azken agurra.